

Hemen nago



Informazio gehiago <https://hemennago.com/>

Gazteenak arazo sozial honen inguruan sentsibilizatzea, bikote-harremanetan indarkeriazko jarrerak eta osasuntsuak ez diren portaerak prebenitzea eta herritarren artean emakumeen aurkako biolentzia sistematikoaren inguruko kontzientzia zabaltzea dira ekimen honen egitekoak.

Kanpaina, Vital Fundazioak eta Gurutze Goriak garatzen duena, Arabako 15 eta 18 urte bitarteko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago.

Genero-nortasunaren eta pertsonen arteko harremanen konfigurazioan eragitea da programaren helburua. Horretarako, nortasun tradizionaletatik eta gizon eta emakumeen artean eman diren botere-harremanetatik kanpo dauden aukerak lantzen dira. Horrez gain, elkarrizketa eta negoziazioa oinarri duten harreman berdinezale eta demokratikoak eraikitzeke jarraibideak eskaini nahi ditu programak. Gazteak bakearen kulturaren, errespetuaren eta batez ere generoari dagokion indarkeria ezan hezi nahi dira, eta beharrezko gaitasunak eman, arlo sozialean nahiz komunikatiboan. Halaber, gatazkek konpontzen eta harremanak modu ez-biolentoan eraikitzen irakasten zaie, bitartekotza, negoziazioa eta elkarrizketaren bidez.

Hori guztia lortzeko, parte-hartzea oinarri duten lan-teknikak erabiltzen ditu programak, parte-hartzaileek agerian utzi ditzaten desberdintasunean eraikitako harremanek eragiten dizkieten sentimenduak eta bestelako portaerak proposatu ditzaten. Parte-hartzaile bakoitzaren eta taldearen esperientzietatik abiatzea, haien hausnarketak entzutea, elkarrizketa, elkarri entzutea eta eztabaida sustatzea eta bestelako alternatibak eskaintzea ikasketaren prozesu

honen lagungarri dira.